



Datuak nireak, negozioa zurea? bideoa eta bideoa ikusteko gida Pribatutasunari buruzko fitxa teknikoa www.avpd.es (aurki)	
1. Proiektuen identifikazio datuak	<ul style="list-style-type: none">• Izenburua: <i>Datuak nireak, negozioa zurea?</i>. Prestakuntza bideo bat da, bideoa ikusteko gidarekin.• Urtea: 2010• Antolatzaileak: Datuak Babesteko Euskal Bulegoa. Irlandako <i>Data Protection Commissioner</i> erakundeak argitaratutako bideo baten egokitzapena da.
2. Proiektuaren ezaugarriak	<p>Bideo hau langileen sentsibilizazio eta prestakuntza programa batean erabiltzeko asmoarekin egin da, eta bere helburua da erakunde publiko eta pribatuei laguntzea, datu pertsonalak erabiltzen dituztenean, araudi ezargarrian finkatutako baldintzak betetzen.</p> <p>Pelikula ikusteaz gain, Bideoa ikusteko gidaliburu bat ere badago osagarri gisa. Gidaliburuak taldean eztabaidatzeko zenbait gai ere proposatzen ditu, adibidez, parte-hartzaileen erakundeetako datu-babesaren gaineko printzipioak, pribatutasuneko politika eta informazioaren kudeaketa-prozedurak.</p> <p>Bideoa eta Gidaliburua euskaraz nahiz gaztelaniaz daude.</p>
3. Helburuak	<p>Prestakuntza-bideo honen xedea da datu-babesari buruzko araudia hobeto ulertzeko lagungarri izatea eta erakundeetan, informazio pertsonala tratatzen dutenean, jardunbide egokiak erabil ditzaten suspergarri izatea. Hori lortzeko, parte-hartzaileak zirikatzen ditu bakoitzaren lan-esparruan datu-babesa nola aplikatzen den pentsa dezaten.</p> <p>Prestatzaileen eginkizuna da bideoa ikusten duten pertsonak konturaztea laneko esparruan beste pertsona batzuen datu pertsonalak kontrolatzen dituztela, baina bizitza pribatuan beraiek ere informazio pertsonala ematen dietela beste batzuei. Eskuaratean inoren datuak erabili ohi dituen langileak gai izan behar du datu horien jabearen tokian jartzeko eta bere buruari honakoa galdetzeko: "Nola sentituko nintzen datu horiek nireak izango balira?"</p>
4. Hartzaileak	<p>Erakundeetako langileak, esparru publiko edo pribatukoak eta jarduera esparru guztietakoak.</p> <p>Oso egokia da aurrez egiteko, pertsonari buruzko informazioa nola kudeatzen duten hausnartu beharra duten eta kudeatzeko modua ere aldatu beharra izan dezaketen langileekin.</p>
5. Pribatutasuneko edukiak	<p>Fikziozko enpresa bateko zuzendaritza-bilera baten inguruko dramatizazio bat da. Bertan hainbat egoera islatzen dira, era praktikoan erakusteko zeintzuk akats egin daitezkeen enpresako langileak ez badaude datu babesarekin zerikusia duten gauzen jakitun. Era berean, informazioaren tratamenduan jardunbide egokiek ekar ditzaketen onurak ere islatzen dira.</p> <p>Bertan agertzen diren egoeren bidez, datu-babesaren arloko ondoko printzipioak aztertzen dira:</p> <ol style="list-style-type: none">1. Informazioa legearen arabera eta leial jokatzuz biltzea eta prozesatzea, aurretik informazioa emanez eta adostasuna eskatuz.2. Informazioa, eskatu zenean zeuden helburu esplizitu eta legekoetarako baino ez gordetzea.3. Informazioa, bildu zenean zeuden helburuekin bateragarria den eran



	<p>bakarririk erabili eta jakinaraztea.</p> <ol style="list-style-type: none">4. Pertsonen buruzko informazioa modu seguruan eta babestuta gordetzea eta sekretu gorde beharra betetzea.5. Ziurtatzea informazioa aproposa eta egokia dela eta ez dela gehiegizkoa.6. Informazio zehatza, osatua eta eguneratua gordetzea.7. Informazioa ez gordetzea helburua betetzeko behar baino denbora gehiago.8. Norbaitek bere datu pertsonalak eskatuz gero, kopia bat ematea. <p>Datu-babesaren inguruko legediak informazio pertsonala kudeatzeko eta babesteko esparru bat ematen du eta honako bi funtzio hauek ditu:</p> <ul style="list-style-type: none">• Batetik, hainbat betebeharrak ezartzen ditu beste pertsonen buruzko informazioa dutenentzat.• Bestetik, hainbat eskubide aitortzen dizkie herritarrei, haien buruzko informazio pertsonala nola prozesatu behar den arautuz. <p>Helburu guztiak erdiesteko, gutxienez ordu bete eman beharko litzateke hura ikusten eta erakundeko jardunbide egokien gainean eztabaidatzen. Hala ere, hezkuntza tresna independente bezala ere erabili daitezke.</p> <p>Bideoa prestakuntza prozesu baten barruan erabili behar duten bideratzaileek edo prestatzaileek alde aurretik ikusi beharko dute bideoa, eta horretaz gain:</p> <ul style="list-style-type: none">• Datu babesaren printzipioak ezagutu beharko dituzte.• Parte-hartzaileei haien erakundeari buruzko berriazko informazioa aurkeztu beharko diete prestakuntza saioan. Horrek esan nahi du erakundearen pribatutasun politikaz eta informazioaren kudeaketa prozesuez aritu beharko direla.• Parte hartzaileentzat garrantzitsua izan daitekeen laguntzako materiala banatu beharko dute.
6. Egin beharreko jarduerak	<p>Bideoa. Bideoa ikusi. Taldean ikusten bada, hobeto. Horrela eginez gero, langileak motibatuago eta kontzentratuago egongo dira gero taldean egin beharreko hausnarketa egiteko eta Bideoa Ikusteko Gidaliburuan proposatzen diren galderei erantzuteko.</p> <p>Beste aukera bat da langile bakoitzak bere ordenagailuan ikustea bideoa. Hori egiteko, DBEBren web-orrialdera jo beharko du: www.avpd.es.</p> <p>Taldean eztabaidatzea eta hausnartzea. Pelikula ikusi eta gero, taldean elkartuko dira hausnarketa egiteko. Taldeak egiteko, lan esparru bereko langileak elkarrekin jarriko dira, fitxategi eta datu pertsonal berberak erabiltzen dituztelako.</p>
7. Ikaskuntzaren testuingurua	<p>Barruko prestakuntza. Prestakuntza-baliabide hau aproposa da barruko prestakuntza-saioetan erabiltzeko lantokian bertan, lan esparru bereko langileekin. Horrela, aukera izango dute datu pertsonalen arloan erabili ohi dituzten jardunbideen gainean hausnarketa egiteko, jardunbideak aldatzeko proposamenak adosteko, jardunbide hobek proposatzeko eta abar.</p> <p>Autoprestakuntza. Prestakuntza-baliabidea autoprestakuntzarako ere aproposa da, sarean dagoelako eskuragarri.</p> <p>Harrera garaiko hasierako prestakuntza. Langile berrientzako prestakuntza saioetan erabili daitezke.</p>